

UDAL GIZARTE ZERBITZUEN ETA BERTAKO PROFESIOALEN EGOERA DELA KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urtarrilaren 22an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 16an Langileen Batzordeak udaleko gizarte zerbitzuetako profesionalen egoera tamalgarriaz ohartarazi gintuen, eta hori azken urteetako arazoa da. Udal gobernuak, egoera honen jakitun da eta 2024ko azaroaren 22an zein abenduaren 3an langile batzordearekin izandako bileretan, argi adierazi zen neurri urgenteak behar dituela gizarte-ekintzako saileko langileek duten lan-karga handia arintzeko.

Hain zuzen ere, 2024ko urrian LAB sindikatuak egindako salaketaren ondorioz, lan-ikuskaritzak errekimendua egin zion udalari profesionalek jasandako arrisku psikosozialak direla eta. Baina atzerago eginez ere, 2017an dagoeneko antzeman zen departamenduko langileen osasunerako arriskua handia zela lan-karga handiegiagatik.

Egun, udal gizarte zerbitzuetako baliabide profesionalak ez dira demandarekin eta egungo beharrekin koherentzian indartu eta urteak neurrien zain egon ondoren, langileak gainezka daudela adierazten dute.

Delegatuak batzordean langileei adierazitako berdina aipatu digu behin-behineko soluzioak planteatu gabe, hau da, 2026rako Gizarte Ekintzako kontratazioak lehenesten saiatuko zirela, baina profesionalek diote ezin dutela denbora gehiago iraun egun dauden egoeran.

Gure ustez kontuan hartu behar da, zaintza behar handiak dituen hiri zahartu batean eta ziurgabetasun handiko une sozial batean, non behar sozio-ekonomikoak ugariak diren, gizarte politikak garatu, indartu eta eraldatu egin behar direla, egungo beharrekin bat eginez; eta prozesu hau profesionalen duintasuna eta zaintzaren eskutik doa. Gainera, gizarte-zerbitzuak dira jada donostiarrek gehien erabiltzen dituzten udal-zerbitzu publikoak (2022an, Donostiako 5 familitatik 1ek baino ez zuen jo zerbitzu horietara).

Badira ere langileen batzordeak zuzenean udal gobernuari egindako eskaera zehatzak eta egingarriak, hala nola: langileen oporrak ordezkatzea lana gehiago ez pilotzeko eta herritarren beharrei erantzuteko, hobekuntza informatikoak egitea burokrasia arintzeko



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu



Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

edota zerbitzuaren inguruko diagnostiko eguneratu bat egiteko soluzio praktikoak bilatzeko.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gizarte-ekintzako saileko baliabide profesionalak urgentziaz handitu ditzala, profesionalen lan-karga arintzeko eta herritarrek kalitatezko arreta izan dezaten.
2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gizarte-ekintzako langileen ordezkariekin negoziazio mahai bat sortu dezala, sailak behar dituen neurri zuzentzaileak aztertu eta indarrean jartzeko.
3. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, otsailetik aurrera gizarte-ekintzako profesionalen oporrak ordezkatzeari lana gehiago ez pilatzeko eta herritarren hitzorduak ez atzeratzeko.

Donostian, 2025eko urtarrilaren 24a

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia